

Emakumeen kontrako indarkeria. Hausnarketarako ekarpen batzuk feminismotik

Aurkezpena

Beste ahots feministak (Las otras voces feministas) tendentzia feministari atxikitako emakume talde bat bildu gara emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikuspuntu eta ardura batzuk plazaratzeko¹.

Ponentzia honen interesa, indarkeriari buruzko diskurtso "ofizialaren" inguruan ditugun ardura batzuk azaltzea da. Feminista bezala -batzuk emakumeenganako arreta zuzenean lan egiten dutenak, beste batzuk hainbeste indarkeria eta honen inguruko erretorika ofizial eta herrikoiaurrean, berezko planteamendu eta proposamenak sortzeaz arduratuta-, pausatu eta gaiari buruzko gure ziurtasun eta, batez ere, zalantza batzuk partekatzeko beharra dugu, duela urte batzuk eskusiban geurea zirudien, baina egun emakumeen arretari buruzko praktika instituzionalak gidatzen dituzten zenbait diskurtso sortarazten dituen gaiaren inguruan.

Gure eguneroko bizimoduan onartu eta jorratu egiten dugun, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko diskurtso feministak baditu jada hogeita hamar urte eta, egungo genero harremanak ikusita, uste dugu badela garaia berrikusteko. Emakumeak, gizonak eta gure artean eratzen ditugun mota guztietako harremanak zeharo aldatu dira azken hiru hamarkada hauetan; egia da aldaketa hauek ez dutela eraldatze totala suposatu, batzuek dioten bezala, baina ez gaude ados orain dena desberdina dela diotenekin eta, era berean, ez dugu "denak berdin dirau" ideiarekin bat egiten.

Emakume eta gizonen arteko harremanak aldatu dira. Emakume asko zeharo aldatu gara ere. Gizonezko batzuk baita, baina gutxiago. Errealitate berri honetan, aspaldi landutakotik, inork ez zuenean indarkeriari buruz hitz egiten eta gizontasunaren sinonimotzat ikusten zen garaitik, zer

¹ Norma Vázquez, Ana Almazán, Lala Mujika, Elisabet Padial, Mari Carmen Sainz, Maria Rosario Arrizabalaga, Kontxi Orcasitas, Mari Carmen Camarero, Carmina Ramírez.

berreskuratzen dugu?

Feminismoak, fenomeno hau ulertzeko ekarpen teoriko garrantzitsuenak eta fenomeno hau bizi duten emakumeen arretarako proposamen aurreratuenak egin dituela uste dugu. Sinesmen honetatik, uste dugu badugula aukera gure postulatu nagusietan sakontzeko eta garaian ikusezinak ziren zokoak begiratzeko.

Garai nahasiak

Gure iritziz, bizi dugun unearen ezaugarri garrantzitsuenak inguruko nahasmen handia da, indarkeriari buruzko gertakarien hedapen handi eta ez-osoaren emaitza. Problematikari buruzko medioen hedapenak ez du bakarrik sentsibilizazioa areagotzen, arazoaren abordatze okerra sustatzen du ere, batzutan enfasia anekdotikoan (erailketa bakoitzaren ostean hedabideek beti testuingurutik kanpoko auzokideen komentarioak jasotzen dituzte) jartzen, analisisan jarri beharrean. Urriak dira medioetan indarkeriaren dinamika aztertzeko dauden ahots baimenduak. Badirudi mundu guztiak ulertzen duela gaia, edonork jakingo lukeela zer egin, errealitatean, emakumeei errua egozten dieten leloak errepikatzen direnean, adibidez, jada klasikoa den "ez zuen salaketarik jarri" edo asko errepikatzen den aholkua "utz ezazu" bezalakoekin, gertakariaren baldintzak, historia eta kasu bakoitzeko aukerak ezagutzea alde batera utzita.

Gainera, problematikaren gehiegizko psikologizazioa ematen ari da, bere abordatze zuzen bat soilik adituek egin zezaketenean. Badirudi indarkeriak ez duela dimentsio sozial eta ekonomiko bat, ez duela loturarik genero desberdintasunekin eta emakumeek lana topatzeko pairatzen dituzten desberdintasunekin, ez duela loturarik gizon-emakume harremana desegituratzen ari den une honetan, gizarte aldaketak abiadura berean ez gertatzearekin. Indarkeriaren gizarte dimentsio eta dimentsio politikoa alde batera utzita, badirudi indarkeriak ez duela dimentsio sozial eta ekonomiko bat, badirudi guztia eremu psikologikoko arazo batera mugatzen dela, bereziki emakumearena (emakumeak indarkeriazko harremanetara zergatik

“engantxatzen” diren ondorioztatzen saiatzen diren azalpen mordoa dago esparru honetan). Batzutan gizonarena edo biena. Ikuspuntu honetatik, arazoaren konponbidea biktimen aldetik aurre egite estrategia egoki batean datza, harremana lehen tratatu txarretik bukatzeko gaitasunean edo eskolatzearen lehen urteetako prebentzio ekintzetan. Guzti hau beharrezkoa dela uste dugu, baina ez da nahikoa, izan ere, arreta osoa banakakoen irtenbideetan jartzen da, sortu beharreko gizarte neurriak ahaztuz.

Emakumeen hilketek sortzen duten gizarte presioak, ekintza hauek eragozteko eta berehala erantzuteko urgentzia klima sortarazten du. Edonola, urgentzia hau, beharrezkoa izanda ere, ez du politiken eta interbentzioen eraginkortasuna bermatzera laguntzen eta dauden baliabide, zerbitzu, abordatze, diskurtsoen balorazio eta zuzenketak egiteko berrikusketa prozesuak oztopatzen ditu.

Desberdintasuna jatorri bezala

Gizonezkoen emakumeen kontrako indarkeriazko ekintzetan azaltzen diren hainbat aldagaiak (izaera, egoera, harreman pertsonalaren mota eta egoera, etab.) ez direla indarkeriaren kausa dio diskurtso feministaren ideia nagusietako batek. Indarkeriaren kausa gizon eta emakumeen arteko desberdintasunean datzala dioen argumentu berritzailean jarri genuen enfasia. Uste eta proposatzen genuen, agian ezjakintasunetik edo esperientzia falta zela eta, behin giza harremanak berdintasunezkoagoak izatean, emakumeak egoera hobeto egongo zirela gizonaren kontrola eta bere indarkeriazko adierazpidea ez pairatzeko. Ez genuen hain argi esaten, baina gure ideia multzoan bazegoen ere gizonezkoak aldatuko zirela, berdintasunaren onura jaso eta ez luketela (gainera ez lukete nahi izango) emakumeengan eta emakumeen jarrerengan kontrolik ezarriko.

Egitura analisi hau bogan jarraitzen duela agerikoa bada ere, politika guztien orientazioan dagoen joera batek larritzen gaitu: begirada biktiman jartzen dute guztiek eta erasotzailea ahazten dute. Erabiltzen diren ohiko izendapenek (“emakumeen kontrako indarkeria” edo “genero indarkeria”) ez dituzte indarkeria honen arduradunak izendatzen: gizonak edo,

zehatzago, maskulinitasunaren konstrukzio hegemonikoa. Honen ondorioz, gizonak gaiaz paso egiten dute eta, beste behin, "emakumearen ardura" bezala ezarrita geratzen da gaia.

Gure ikuspuntua aldatzean eta gizonengan fokatzean, bide desberdinetatik joko genuke, hasteko, gizarte aldaketarekin bustitzen diren gizonen *euren* generoaren (eta *euren generokideen*) arazo hau berrartzea exijitzea, berdintasunezko harremanen eraikuntzarako gai nagusitzat.

Honetaz gain, lezioak jasoko genituzke familia tradizionalaren oinarri den eta gizona hornitzaile eta emakumea zaintzailetzat irudikatzen dituen bikote heterosexualaren arriskugarritasunari buruz. Eredu hau indarkeria ekintza askoren oinarrian dago eta emakumeengan, eta gizonengan ere, arrisku larriak dakartzan sorkuntza itun batean sostengatzen da.

Askotan, azalpen estrukturalan gehiegizko enfasia jartzean, subjektibotasunaren (gizonezkoa eta emakumezkoa) berezko elementuei buruzko gogoeta, bidetik gelditu zaigula uste dugu. Orain, diskurtso ofiziala, Estatuaren politikak eta kulturaren elementu batzuk ere egitura analisi honekin busti direnean, indarkeria honetan ageri diren beste faktore batzuk aztertzeraz gelditu ginatezke beldur gutxiago eta kuriositate gehiagorekin, adibidez: feminitatearen konstrukzio subjektiboa eta amodioak beregan jokatzen duen papera; gizon eta emakumeek bikote harreman jakin batzueganako duten dependentzia emozionala; emakume batzuei gizonezkoaren figura ondoan izateak suposatzen dien segurtasuna; emakume batzuek euren autonomia eta botere eskuratze prozesueganako duten beldurra; indarkeriak gizonaren subjektibotasunean duen papera eta dituen kontradikzio eta zailtasunak bere inguruan eta bikoteetan ematen ari diren aldaketak onartzeko; familia mota desberdinetan ematen den rol desberdinduen irauteak, emakumeengan zainketa emozionala eta familia kideen bizi gidaritzak jartzen duena; maitasun erromantikoaren kontzeptua, emakumea gizona emozionalki eusteko eta bere burua ahazteko "beharra" sortzen diona... azken finean, gizon eta emakumeak, amodioan, familian eta giza inguruetan hurbiltzen garen moduekin erlazioatutako hainbat ezaugarri, indarkeria ulertzeko baliagarriak izan daitezkeenak.

Ez da gure intentzioa elementu guzti hauek orrialde hauetan jorratzea, gaia sakonegia baita hain espazio gutxirako. Baina edozein modutan, esparru batzuetan eman den berdintasunaren areagotzeak, zergatik ez duen indarkeriaren murrizketa bat suposatu azaltzeko, pentsamendu feministak, baliagarriak diren alderdi hauen azterketa egin behar duela uste dugu. Gure ikuspuntutik, gizon eta emakumeen subjektibotasunaren azterketak, indarkeriaren kausen egitura analisia osatzen eta, noski, konplexutasunetan sakontzen laguntzen gaitu.

Instrumentala eta sinbolikoa

Gaur egun, bikote harremanen indarkeriak medioen atentzioaren parte handi bat okupatzen du, gurea baita ere. Ez da existitzen den bakarra, baina bai alarma handiena sortzen duena, behin eta berriro ematen delako geroz eta krudeltasun gehiagorekin. Pena merezi du gai honen inguruan pausatzeak.

Indarkeria honek bi dimentsio ditu: instrumentala eta sinbolikoa. Lehenengoa, gizon jakin batek emakume jakin baten kontra edozer deskargatzen duenean (kontrola, frustrazioa, botere galera, angustia...) ematen den eta hedabideetan nabarmentzen den dimentsioa da: ez zuen salaketarik jarri eta auzokideak ez ziren konturatu, edo, iragarritako hilketa baten kronika izan zen, eta aurrera jarraitzen da.

Bestalde, dimentsio sinbolikoa ez da ia agertzen eta agertzekotan, galdera erretorikoak egiteko eta kalifikagarrien maila areagotzeko izaten da, baina ez da sakontzen. Zergatik hiltzen dute gizonezkoek? Azkenaldian hil duten gizonek zergatik baliatu dira hainbeste ankerkeriaz? Inmigrazioak hainbesteko frustrazioa sortzen du eta hainbeste aldatzen ditu bikotearen rola indarkeria eta hilketa geroz eta ohizkoago bilakatu direla? Zergatik krimen zehatz honetan, gaizkilea bere buruaz beste egiten saiatzen eta entregatzen da? Amorrua bukatu al zaio? Zergatik mantentzen dira gizon baketsuak (batzuk salbu) borroka honetatik at, euren ez-biolentzia instrumentalak genero kideen biolentziaren inpaktutik salbu mantentzen

dituelakoan?

Larritzen gaituzten eta erantzun gabe ditugun galderetako batzuk dira hauek, baina baditugu susmo batzuk. Jarraitzen dugu pentsatzen indarkeriaren erroa desberdintasunean datzala eta zehatzago, emakumeen erabakitzeko, mugitzeko eta aukeratzeko gaitasunaren kontrol instrumental eta sinbolikoan. Hau honela izanda ere, dudarik gabe lortu diren berdintasun kuota altuagoekin indarkeria hori krudelago bihurtzen da.

Azken urte hauetan indarkeria errektibo baten aurrean aurkitzen gara; gizonezkoek orain, amorru gehiago dutela, sarriago galtzen dutelako euren ondasun bat bezala kontsideratzen jarraitzen duten emakumeenganako kontrola. Beste alde batetik, indarkeria honekiko gizartearen tolerantzia kontraesankorra da, mesprezu publiko formala eta gizarte zigorgabetasuna elkar bizi baitira eta seguruenik, badirela ere indarkeria onartzen duten eta gizonen "eskubidea" dela dioten antzeko adierazpideak. Gizon askorentzat, indarkeriaren erabilera geroz eta beharrezkoagoa da, euren balioa euren buruaren aurrean ez galtzeko, euren berezko irudia pixka bat kontserbatzeko eta autoestimua mantentzeko ere.

Emakumeok amodiozko harremanetan dugun paperaren inguruan, emakume batzuek duten nahasmenari buruzko hipotesia agertzen dugu ere, hau da, jarraitzen dugula pentsatzen ardua eskusiban guk dugula. Eta feminitatearen gizarte aldaketek gure autonomia azpimarratzen duten arren, amodioa gure identitatearen egituraren puntu garrantzitsuenetariko bat izaten jarraitzen du, bakardadearenganako beldurrarekin batera (gizarte baztertze elementu psikologikoak batzen dituena). Guzti honek, emakume batzuk dependentzia eta gehiegikeria sortzen duten kalitate txarreko harremanetara bultzatzen ditu, tratu txarrak onartzera eta egoera honekin apurtzeak lana kostatzera.

Gaur egun, salaketaren abordatze kultura bat sorten ari da (bide bakar bezala salaketa ezartzen duena), kontuan izan gabe emakume askorentzat oraindik, emateko urrats zaila dela. Subjektibotasunak aldatzen doaz, fenomenoaren ulerkuntzan sakontzen jarraitzen dugu eta, oraindik

emakumeei gehiago presionatzen dieten, inguruko harremanak aldatzen diren bitartean, salaketa aukera bakar bezala azaltzen ez duten bide gehiago egon beharko lirateke (exijitu beharko genituzke).

Emakumeek duten tratu txarren pertzepzio subjektiboa oso anitza da. Emakume guztiok gure bizitzan zehar tratu txarrak (era desberdinetakoak) pairatzeko aukerak ditugun arren, interpretatzeko era desberdina izan daiteke eta gure historia pertsonalaren araberakoa izango da, guztiok ez ditugulako esperientzia hauek integratzeko tresna berdinak. Batzuentzat momentutik aurrerako bizitza aldatu lezake, beste batzuentzat berebiziko esangurarik gabeko oroimen txar soil bat den bitartean.

Badaude, euren bikote harremanean instalatuz edo gizon eta emakumeen arteko harremanetarako ikusten dituzten aukeren barruan, normalizatzen diren indarkeria gertaerak bizi dituzten emakume asko. Horregatik, pairatzen badute ere, uste dute pairatzen duten indarkeria normala dela. Beste batzuk, ordea, bizi duten indarkeriaren kontzientzia handiagoa izango dute, antzemango dute eta baita dena bezala izendatu, baina ezin dute laguntzarik eskatu zenbait arazo direla eta: euren burua errudun ikusten dutelako, beldur gehiegi dutelako, uste dutelako inork ezin dituela lagundu, esperientzia etsigarriak izan dituztelako, oso baztertuak sentitzen direlako, etab.

Beste sektore bat, agian murriztago bat, laguntza eskatzen duten emakumeena da, ez soilik zerbitzu publikoei. Familiakoengana edo lagunengana orientazio edota adeitasun bila hurbiltzen diren horiek dira, edo zerbitzu pribatu batera gerturatzen direnak, agian tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzako zerbitzu publikoak txiroekin lotzen dituztelako edo ez dutelako euren burua menpeko emakumearen ustezko irudiarekin identifikatzen eta euren indarkeria arazoa laguntza zehatz eta behin behineko batekin konpondu dezaketela uste dutelako.

Azkenik, zerbitzu publikoetara laguntza bila jotzen duen edota erasotzailea salatzea erabakitzen duen emakume taldea dugu.

Elkarbizitza eta bizipen maila desberdin hauek, ulertzen lagundu beharko gintuzkete zeintzuk diren emakumeen pertzepzioa alde batera edo bestera mugitzen duten tresna pertsonal eta gizarte baliabideak. Modu berean, balio beharko lukete estrategia desberdinak proposatzeko eta administratibotik erantzun desberdinak emateko, talde desberdinetatik agertu daitezkeen beharrei.

Adibidez, indarkeria pairatu dezaketen emakumeek, edo normalizatzen dutenek, edo baita ere antzematen dutenek baina ezin dutenek salatu, normalizazio hau zalantzan jartzen duten politikak behar dituzte. Emakumeak errudun egiten ez dituzten eta aldi berean, babesaren bilaketa legitimatzen duten prebentzio eta kontzientziazio politikak. Entzutea oinarri duten politika batzuk, eta gaur egungo bikote harremanetan emakumeek (eta gizonezkoak batzutan ere) dituzten beldurrak ulertzen dituztenak. Emakumeak egun, mezu moderno, jarrera zaharkitu eta pertsoneri exijitzen zaien azkartasunarekin aldatzen ez diren instituzioen artean aurkitzen baitira.

Emakumeek indarkeriarenganako ulerkuntza maila desberdinak dituzten bezala, uste dugu agerikoa dela gizonen artean ere, badaudela kutsu desberdinak erabili ahal duten, edo ezin duten, indarkeriaren analisia egiterakoan. Zalantzarik gabe, badaude atribuzio genetiko honen aurka azaltzen direnak, gutxienak, eta oraindik legitimo bezala ulertzen dutenak ere. Egia esateko, ezer gutxi dakigu eurek gaiaren inguruan egiten ari diren gogoetari buruz, espero dugu egiten ari direla. Eta noski, gustatuko litzaiguke ez dezatela ahaztu desberdintasunean oinarritutako harreman horietan duten papera, hau da, ez kontatzea soilik zenbat sufritzen duten euren sentimenduak ezin dituztelako azaleratu, baizik eta partekatzea egoera honek zenbat abantaila ematen dizkien eta nola "baliatzen" diren hauetaz.

Zer gertatzen da lege berriekin eta sortzen duten kulturarekin?

Gure ikuspuntutik, sortutako arreta sistema eta tresna juridikoak aurrerapen garrantzitsuak dira. Baina sakonago jo nahi dugu eta azterketa

egin, ikuspuntu feminista batetik, (ez hauteskunde kanpaina tresna bat bezala) genero indarkeriaren aurkako Lege Integralaren eraginari buruz. Ez dugu uste mugimendu bezala egunero aldaketa legegileak eskatu behar ditugunik, baina lege honen ezarpenaren emaitzen analisi zorrotza egitearen alde gaude; bestela, aldaketa legal hauek ez dituzte aintzat hartuko izandako bizipenen ikaskuntzak, zentzu positiboan nahiz negatiboan. Horregatik, uste dugu mugimendu feministak Lege Integral honen emaitzen ebaluaketa bat exijitu behar duela, eta orokorrean, Estatuko, erkidegoen eta udalerrien gai honen inguruan bultzatzen diren politikena.

Biztanleriak benetan Legeak nola funtzionatu duen jakin behar du, jakiteko zer den aldatu behar dena, zer edo zer aldatu beharrekotan. Horregatik, administrazioari ebaluaketa zorrotz bat exijitu behar diogu, kuantitatiboa baina kualitatiboa ere, oinarrizkoak iruditzen zaizkigun galdera batzuk erantzuteko:

- Legea eta honetatik eratorritako arreta tresnak, emakumeen burujabetasuna sendotzen laguntzen ala menpekotasun berriak sortzen ari dira?
- Gizarte alderdiak hobetzen dituen perspektiba batetik ari al da interbenitzen, zigor penalak azken irtenbidetzat utziz, ala nagusiki zigortzailea den politika bat sortzen ari da?
- Genero indarkeriaren aurkako borrokan, prebentzioari eta biztanleriaren inplikazioari ematen zaio garrantzia ala protagonismoa epaitegiei eta bereziki poliziei eman al zaie?

Emakumeen burujabetasuna interbentzioaren helmugatzat

Genero indarkeria gizon eta emakumeen artean desberdintasun nabariak ematen ari den egoera batean sortzen da; guztiek ez dituzte tratatu txarrak sorburu, baina honek ikusgarri egiten ditu eta areagotu egin ditzake ere. Hori bai, ez dugu uste indarkeriarena izango denik emakumeenganako

desberdintasun eta diskriminazio arazo nagusiak konpontzeko esparrua.

Euren bikotekidearengandik indarkeria egoerak bizi dituzten emakumeak eraso baten biktimak dira eta, honenbestez, lagundu behar ditugu eta gizarte arlotik konpondu daitekeena konpondu. Ezin dena egin bizitzaren arlo hau euren identitatearen ardatz nagusi bihurtzea da, hau da, ez gaude ados instituzioetatik politika biktimistak sortzearekin, edo emakumeei euren bizitzaren inguruan erabakitzeke eskubidea kentzearekin.

Gure ikuspuntutik, tratatu txar egoerak bizi dituzten emakumeei zuzendutako interbentzioak euren ahalmen eta trebetasunak sendotzera orientatuta behar dute egon, kontuan izanik ahalmen hauetako asko bizi izandako, eta osasun mentala eta emozionala bereganatzeko landuak izan behar diren egoera traumatikoengatik murriztuta daudela. Sorkuntza prozesu honetan laguntza handia eta suspertzailea behar dute, baina gero, edo aldi berean, beste laguntza batzuk aurkitu beharko dituzte, adibidez, euren autonomia irabazteko eta mantentzeko.

Zentzu honetan, indarkeria kasuetako laguntza sozio-ekonomikoen helburua emakumeen segurtasuna izan behar da eta, horregatik, euren bizitza arriskuan jartzen duten egoera horien aurrean, emakumeak egoera hobeetan jartzen dituzten neurriak izan behar dira. Emakumeek ez lukete inoiz egoera hauek pairatzera *beharturik* egon behar baliabide faltagatik.

Genero indarkeriaren aurkako Lege Integrala, problematika hau benetan modu egoki batean eta bere osotasunean erasotzen ari ote den eta emakumeen burujabetasunaren alde ari ote den ebaluatzeko, hurrengo puntuetan, emaitzen inguruan administrazioari kontuak exijitzea proposatzen dugu:

1.Emakumeen autonomia materiala

Horretarako beharrezkoa da:

- Kuantifikatzea zenbat emakumek erabili dituzten zer baliabide sozio-

ekonomiko (Oinarrizko Errenta, Gizarte Emergentziarako Laguntzak, beste udal laguntzak, etxebizitzarako laguntzak...), identifikatuz bai laguntza horiek eskatu dituzten emakumeak eta baita jasotzen dituztenen portzentajea, eta aztertuz zergatik ukatu diren baliabide hauek, hala izan denean.

- Jasotzen dutenen, eskatu dutenen eta ukatu zaienen datuak bereiztea jatorrizko herriaren arabera, modu honetan jakiteko zelako egoeran aurkitzen diren emakume etorkinak.
- Emakumeei eskatu zaizkien akreditazio bideei buruzko datuak jasotzea: indarrean dagoen babes neurria, Fiskaltzaren txostena, gizarte zerbitzuen txostena, medikuaren txostena, arrera zentroaren txostena, etab., frogatzeko ea indarkeria pairatzen duten emakume guztien eskubideak bermatzen diren ala soilik salaketa ipintzen dutenenak, alde batera utziz salaketa jartzeko arazo larriak dituztenak. Batez ere, kontutan izanda, askotan salaketak ez dakartzala berarekin batera, erasotzailearen erantzunak ekar ditzakeen mugaketa edo arriskuen aurrean emakumeak bere bizitza normala aurrera eramatea bermatzen duten neurriak.

Mugimendu feminista bezala exijitu behar dugu ere, alderdi hauen inguruan egiten den ebaluazioarekin batera, aurkitzen diren premiak asetzeko tresnak zehaztu eta bideak egin daitezela.

2.Emakumeen autonomia subjektiboa

Emakumeek eremu honetan autonomia lor dezaten, eraldaketa sakonak gertatu behar dira emakumeek tratatu txarrak antzematen dituzten eta bizi dituzten moduan, eta baita ere berezko bezala barneratutako feminitasunari atxikitako balore tradizionaletan.

Autonomiaren dimentsio honetarako, aldagai pertinenteak eraikitzeko ezagupen teorikoak edukitzea beharrezkoa da, asko direlako neurtu behar diren aldagaiak emakumeen bizitzetan emandako aldaketak ikusteko. Beharrezkoa da ere emakumeekin lan esperientzia izatea, emakumeen identitate eta subjektibotasunean ematen diren aldaketak prozesu luzeen barruan ematen direla eta pixkanaka eta batzutan modu kontraesankorretan adierazten direla ulertzeko.

Zentzu honetan zenbait esperientzia gauzatzen ari dira tratu txarrak bizi dituzten emakumeekin, emakume feministak dituzten interbentzio taldeetatik (euren ekintzarako malgutasun handiagoa dute beti) eta arreta zuzenean lan egiten dutenetatik (soziala eta psikologikoa). Garrantzitsua da esperientzia hauek batzea eta sintetizatzea, ebaluazio tresnak sortzeko oinarri bezala balio dezaten eta zerbitzu publikoetako interbentzio taldeek erabil ditzaten, ez dutelako beti ikuspuntu feminista bat, ezta indarkeriarena edo emakumeen subjektibotasunarena.

Autonomia subjektiboaren ebaluazio sakona egiteko, gutxienez, hurrengo alderdiak aztertzea behar dira:

- Nola bizi izan dituzten emozionalki emakumeek, jasotako laguntza neurri eta baliabideak: kulpa sentimendua kentzen edo baretzen laguntzen ote duten; tratu txar esperientziak utzi dien beldurra; ea usten ote dieten sentitzea tratu txarrak ez jasotzeko duten eskubidea, etab.
- Nola aztertzen dituzten emakumeek jasotako neurri eta baliabideak: ea barneratuta izan daitekeen esperientzia bat bizi izan duten herritarren eskubide bat bezala ulertzen duten, euren biktima egoeraren leungarri bezala onartzen dituzten, etab.
- Jasotako laguntzak, bermatzen ote dute emakumeen berezko baliabide eta gaitasunak berreskuratzea eta eurenganako eta besteenganako jarrerak aldatzea?

- Jasotako laguntzek, lagatzen ote dute euren inguruko gizonezkoenganako harremanak aldatzen? Eurenganako eta besteenganako jarrera baikorren sorkuntza bultzatzen al dute?

Emakumeek instituzioekin duten harremana eta gizarte ekintzak sustatzeko beharra

Emakumeek erabaki informatuak hartu behar dituzte, euren ekintzen alderdi onak eta txarrak aztertzen laguntzen duten elementuekin. Horretarako, indarkeriaren biktimei eskaintzen zaien arreta publikoan ezinbestekoa da:

- Baliabide eskuragarri eta hauen efektuei buruzko informazio hobea bermatzea. Honetarako, emakumeak laguntzen dituzten sail guztietatik informazio egokia emateaz gain, epaitegietan biktimentzako arreta Bulegoak benetan existitzea eta modu egokian funtzionatzea bermatu behar da, emakumeentzat aholkularitza berezia emanaz. Modu honetan, emakumeak azken bide bezala zerbitzu hauetara heltzean, erabakiak har ditzaten, informazio eta aukera guztiak ezagutzea bermatzeko².
- Telefonozko dohaineko informazio zerbitzuan, eremu juridikoaz gain, era anitzetako informazioa ematen duten perfilak egotea, eta kasu bakoitzean dagokion baliabidera deribatzea modu egoki batean.
- Prozesuan zehar, emakumeak laguntzeko sare bat bermatzea, heziketa programak sustatuz eta orain arte lan honetatik at egon diren elkarteak gerturatuz, adibidez, auzo-lagun elkarteak.
- Erabiltzaileen iritzia jakitea eskuragarri dauden baliabideei buruz, zerbitzu bakoitzak emandako arreta eta emakume hauek kontaktatzeko modua azaltzea. Emakume biktimak herritar bezala

² Aholkularitza horretan ez da soilik azaldu behar salaketa nola egin, bide penalaren

tratatu behar direla uste dugu. Euren intimitatea errespetatu behar da, baina galdetu behar zaie jasotako arretari buruz, beharrezkoa ez den gehiegizko babesik gabe, baina gehiago biktimizatu gabe beste elkarrizketa bat eginez krisi unean.

Eremu honetako kriminalitateari eta tratu txarrak eman dituzten gizonen birgizarteratzeari buruz

Hau neurtzea zaila bada ere, beharrezkoa da datu batzuk biltzea eta pista batzuk emango dizkigun ebaluazioari buruzko aldagaiak baliatzea. Atal honetan egokia litzateke etorkinen eta bertakoen datuak bereiztea, emaitzak zehatzago ebaluatzeko.

Honetarako gure proposamenak:

- Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrala indarrean sartu zenetik, salaketak, babes ordenak, aldi baterako neurriak, sententzia kondenatzaileak eta sententzia absolutiboak kuantifikatzea. Era berean, aztertu behar dira sententzia kondenatzaileak eman direneko kausak eta egoerak eta hauek ez betetzearen faktoreak.
- Legea indarrean jarri zenetik kartzelaratutakoak kuantifikatzea: hauetako zenbat izan dira prebentziozkoak eta zenbat kondenatzaileak? Zenbat tratu txarrak emateagatik eta zenbat kondena ez betetzeagatik? Beharrezkoa da ere, aztertzea zein egoeratan eta zein faktoreengatik suspenditu diren kondenak. Zergatik eta noiz ez dira eraginkorrak berreziketa kurtsuak? Betetzen ez diren zigorretatik, zeintzuetan ematen dira akats gehiago, tratamendu programetan edo komunitatearen mesederako lanetan?
- Eta analisi bide hau jarraituz, sakondu behar da: ematen diren urrutze aginduen hausteetan, zenbatetan gertatu da gizonaren erruagatik eta zenbatetan Estatuak ez dituelako beharrezko

alde txarrak eta beste baliabideak ere azaldu behar dira.

baliabideak jarri? Erasotzaileen tratamendurako zer programa daude, bai kartzelan eta bai kanpoan? Zein kartzelatan ematen dira programa hauek? Egiten ez direnetan, zergatik ez dira ematen? Programa hauen inguruan zelako ebaluazioa egiten da? Berrerortzea ematen da (tratu txarren egoerena): zenbat kasutan? Konparatuz, zer desberdintasun dago programetan parte hartu duten erasotzaileen eta parte hartu ez dutenen artean? Kartzelatik kanpo: non egiten dira tratamenduak eta zein instituziotik? Hauen inguruan, zelako ebaluaketa egiten da?

Azken finean, arazoaren amaiera bilatzen laguntzen duten tresna legalak egoteaz pozten gara, baina mugimendu feminista bezala, ez dugu uste txeke zuririk eman behar dugunik, emakumeen arreta eta erasotzaileen zigorrak ondo abordatzeko informazioa eta analisia exijitzen dugu. Legeak, laguntza eta zigor tresnak ezartzeaz aparte, gizonezkoen emakumeenganako indarkeria ikusteko modu berriak eta kultura berria sortzen dituela ulertzen dugu. Arau honen funtzionamenduari buruz kontuak eskatzeko eskubidea eta betebeharra dugu, kontu objektibo batzuk, eta ez soilik alderdien edo administrazioen mesederakoak direnak.

Gatazken bitartekaritza eta konponketa baketsuari buruz

Eztabaida honetan, badago atentzio bereziz jorratu nahi dugun gaia: bitartekaritza (formala edo informala), indarkeria bizi duen bikote batean interbenitzeko modu bat bezala. Bitartekaritza formalak oposizio ikaragarria dauka, baina badaude hainbat bide bitartekaritza informalerako (familia eta lagunek dihardutenak) eta agian, bide formalek baino ondorio gehiago dituzte.

Indarkeria bizi duen bikote batean bitartekaritza egin ahal da? Bai ikuspuntu profesionalek eta baita giza eskubideen ikuspuntuek, argi eta garbi, ezetz diote. Baina, eta emakumeek nahi badute? Emakumeek, euren erabakitzeko gaitasunarekin (tratu txarrek eraginda, bai), euren bikotekideekin arazoa "konpontzeko" bideak bilatzeko ardura

bereganatzen badute, euren kabuz utzi behar dira, indarrrik gabe, ala lagundu daitezke? Denbora guztian lagundu behar ditugu, euren erabakitzeko gaitasuna zalantzan jarriz eta laguntzen dituztenenganako mendetasuna sortuz?

Genero indarkerian, ekintzaren helburu bezala emakumearen burujabetza izateak, emakumeak erabakiak hartzeko sendotzean datza, erabakitzea asko kostatzen baitzaie eta interbentzio eta arreta zerbitzuek eurengatik egin ditzatela nahi izaten dutelako. Eta egiten ari dira.

Emakumeek erabakiak hartzeko eskubidea dute eta guk, mugimendu, lagun edo profesional bezala, euren aurrean arriskua azaltzekoa. Eta euren erabakietan laguntzekoa. Hau, edo bestela, eurengatik erabakiak hartzen dituzten profesionalen ezartzeagatik lan egingo ote dugu, hil egingo dituela esan dien senarrarekin bueltatu nahi dutenean emakumeak giltzaperatzen dituzten profesionalak.

Bitartekaritzari buruzko diskurtso feministak, desberdintasuna dagoenean bitartekaritarik ezin dela eman esaten du, eta emakumeak instrumentalki eta sinbolikoki desberdintasunean daudenez, erasotzailearekiko bitartekaritza ezinezkoa da. Ados gaude asimetria printzipioak bitartekaritza zailtzen duela esaten dutenekin, eta praktika honetan, gizarte, familia eta politika mailan hain garrantzitsua, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunei buruz hausnarketarik egin ez duten profesionalak jorratzen badute, arriskuak sor daitezkeela uste dugu ere.

Baina nabarmendu nahi dugu, bitartekaritza, formala eta informala, ematen ari dela eta emakumeak, kasu askotan, berriro saiatu nahi direla... bidean bizitza jokoan jartzen badute ere, literalki.

Uste dugu egoera honetan, indarkeria behin betiko kontrol tresna bat ez denean, emakumeek erabakiak hartzeko tresnak eta laguntzak dituztenean, egoerak ez duenean arrisku gehiegirik suposatzen, bitartekaritzan lagundu behar dela, emakumeak hala nahi badu

behintzat.

Indarkeria pairatzen duten emakumeak lagundu nahi ditugu, baina kolektibo bezala onartu behar dugu erabakiak eta betebeharrak hartu behar ditugula, gure bizitza zaintzeko eta gure oinarrizko eskubideak mantentzeko, baita osasuna, autonomia, kontrola...; desberdintasun egoerak kolektibo bezala eragiten digula jakinik, honetarako ditugun baliabideak anitzak dira eta honek berezi egiten gaitu.

Emakumeen aniztasuna ulertzea eta onartzea ezin da eslogan huts batean geratu. Emakumeen aniztasuna onartuz soilik uler dezakegu zergatik emakume batzuek ukatzen duten indarkeria, beste batzuek gutxiesten duten, "ez dela hainbesterako" esaten duten edo beste batzuk zergatik ez duten ezta begirada erasotzaile bat, ezta hitz bat onartzen... Azken finean, bizipen honen inguruan hainbeste eztabaida sortzea ahalbidetzen du.

Gauza garrantzitsu bat lortu dugu, batzen gaituen diskurtsoak (emakume kolektibo bezala gizarte asimetria nabarmenduz eta, horregatik, gizonengandik indarkeriaren bidez kontrola pairatu dezakegula jakinez) politiketan eta gizartean eragin handia izatea, baina oraindik asko falta da baieztapen honen ondorio kultural eta subjektibo guztiak azaleratzeko.

Orain gure buruari galdetu behar diogu, feminista bezala, desberdintzen gaituzten tresnei buruz (gure indarra eta konpromisoa galtzeko beldurrik gabe) eta emakumea bikotekidearen edo medioaren indarkeria era desberdinetan ulertzea eta erantzutera eramaten duten tresnei buruz.

Agian hori izango da gai batzuei buruzko erantzunak lortzeko tokia, bitartekaritza bezala, interbentzio politikak, emakumeen eta emakumeen kolektiboaren biktimizatzearen kontrako beharrezko borroka...azken finean, beste eremu batzuetan nola uler gaitezkeen aztertu behar dugu, nola izan kontuan gure subjektibitate guztiak. Subjektibitate bakoitzaren ulerkuntzatik eta indarretik hasita, gure kontraesan guztiak lepoan

daramatzagula, guztiekin batera hazteko.